

Ignacio M^a Echeberria

Enpresa Zientzietan lizentziaduna Donostiako Enpresa Tekniken Goi Eskolan (ESTE), 1963an. Zuzenbidean lizentziaduna Donostiako Zuzenbide Fakultatean (Valladolideko Unibertsitatea), 1975; Erlijio Zientzietan diplomaduna Deustuko Unibertsitateko eta Bilboko Elizbarrutiko Erlijio Zientzien Goi Institutuan, 2010.

Ignacio M^a Echeberria Donostian jaio zen. Ezkonduta dago eta hiru alaba ditu. Enpresako lanbideko ibilbidea arlo akademiko eta politikoko jarduerekin uztartu du. Horrela, Giza Harremanetako, Business Games-eko eta Industria Psikologiako irakasle izan zen ESTEn hainbat ikasturtetan, 1966tik 1979ra arteko tartean. Bestalde, enpresa ibilbidea 1963tik 1977rako tartean hasi zuen, Gipuzkoako (Transpacar; Perot) eta Bizkaiko enpresetan (Indumetal).

1977an sortu zenetik, IKEI-Ikerketarako Euskal Institutuaren lehenengo zuzendari nagusia izan zen eta bertako Administrazio Kontseiluko bokala da 1982az geroztik. Aurrerago, Gorte Nagusietako diputatua izan zen Gipuzkoatik eta gero Bizkaitik, II eta III. legegintzaldietan. Horregatik, Peñaforteko Raimundo Santuaren Ohorezko Gurutzea jaso zen (Justizia Ministerioa) 1984an.

EHUko Gizarte Kontseiluko lehenengo burua izan zen, 1990-1994 aldian. 1998tik 2010era Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketako Ganberako presidente eta Ganberen Kontseilu Goreneko presidenteorde izan da. 2011. urtearen hasieran BBK Bank CajaSurreko Administrazio Kontseiluko bokal izendatu zuten.

1988az geroztik Indumetal Recycling S.A.ko presidentea da.